

Bosnia Herzegovinatik irteteko agindua jaso du Armada Federalak


Tropak Jugoslaviako Errepublika Federal berriaren lurretara joango dira

Armada Federal serbiar-jugoslaviarra Bosnia Herzegovina errepublikatik irtengo da, Kroazia, Eslovenia eta Mazedoniatik egin bezala eta herenegun bertan Serbia eta Montenegrok osatu zuten Jugoslaviako Errepublika Federalera abiatuko da, Legebiltzar federalak atzo iragarri zuenez.

BEOGRAD

Bosnia Jugoslavia zeneko oinarri militar nagusia zen, 1941ean Josip Broz Tito jeneralak egungo indar armatu jugoslaviarrak osatu zituenetik. «Bosnian da ondoen lo egiten duan errepublika» esan ohi zuen Titok, bertan seguruen zegoela adierazi nahian. Errepublika honetan Jugoslavia osatzen zuten beste bostetan baino industria eta armamentu militar gehiago dago. Armadarentzako egiten zen produkzio guztiaren % 60 bertan ekoizten zen, duela hilabete batzuetatik hona produkzio hori Serbiako industrietara pasatu bada ere.

Orain bere santutegitik alde egin beharko du Armada Federalak. Baina adituen iritziz, indar armatuek nahiko lotsa pasatu dute Eslovenia, Kroazia eta Mazedonian, jeneralak antzeko beste pasadizurik jasateko prest egoteko. Gainera, Jugoslaviako Legebiltzarrek emandako agindua soilik Bosnian dauden tropetako soldadu serbiar eta montenegroarrei dagokie, hau da, tropa



Bosniako Lurralde Defentsako soldadu musulmanak tea hartzeko astia izan zuten atzo.

✓ Lisboan Bosniako hiru komunitate nagusietako buruzagiek errepublika komunitateetan zatitzeko proposamena eztabaidatu zuten atzo EKren artekaritzaz.

guztien % 20ri. Beste % 80 Bosnian bertan jaiotako soldaduek osatzen dute, eta hauek zer egin dezaketen zalantza dago.

Musulman eta kroaziarren aurka (biztanlegoaren % 44 eta % 17) aritu diren Serbiako indar paramilitarrek (% 31) orain artean Armada Federalaren laguntza jaso dute, agintari musulman eta kroaziarrek salatu eta nazioartek ere gaitzetsi duen bezala.

NEGOZIAKETAK EK-REN BABESPEAN

Atzo egunik lasaia bizi izan zuten Bosnia Herzegovinan. Iragan ostegunean Europako Komunitatearen artekaritzaz hitzartutako sutenari esker, kasik tirorik ere ez zen egon, nahiz eta zenbaiten ustez atzokoa ekaitzaren aurretiko barealdia izan. Suetena negoziatzeko modurik egokiena izanik, atzo Lisboa Portugalgo hi-

riburuan Bosniako hiru komunitate nagusietako buruzagiek errepublika komunitateetan zatitzeko proposamena eztabaidatu zuten, askoren iritziz, gerrari amaiera emateko irtenbide bakarra izan daitekeen aukera. Negoziaketa horiekin batera, datorren astelehenean Jugoslavia osatzen zuten errepublika guztietako lehendakarien arteko beste gailur bat iragarri zuten Europako Komunitateak.

Jugoslavia berriaren sorrerak gatazkari irtenbidea emateko beste bide bat ireki dezakeelakoan, Jugoslavia zaharraren oinordekotza ere eztabaidagai izango da, Bosniako gerrarekin batera.



Betty Boothroyd.

Emakume bat izango da Behe Ganbara britainiarreko lehendakari

LONDRES

Lehenkariaren hautapenarekin eman zion hasiera Erresuma Batuko Behe Ganbarak ihar-dunaldi berriari. 1258an Parlamentua sortu zenetik gordetzen zen ohitura hautsi eta Betty Boothroyd emakume laborista aukeratu zuten lehendakari aul-kirako.

1973tik West Bromwich-etik parlamentari den emakume hau John Biffen ministro ohi kontserbadoreak proposatu zuen besteak beste. Laboristek, kontserbadoreek eta beste taldeetako kideek eman zizkieten lehendakaritza lortzeko behar zuten babes: aldeko 372 eta aurkako 238 boto lortu zituen Boothroydek.

Behe Ganbarako lehendakaria aukeratzea partiduko diziplinatik at gelditzen da; parlamentariak euren alderdien presiorik gabe har dezaketen erabaki bakarra da kasik. Ohiturari jarraituz gero Parlamentuko lehendakaria Gobernua dagoen alderdiko kide izan ohi den arren, Peter Brooke Ipar Irlandako ministro toriak ez zuten Boothroydek bezainbeste boto jaso.

Erresuma Batuko parlamentariaren artean gehien desiratzen den eta osperik handiena duen postua betetzeko bultzaka eraman zuten Boothroyd ohitura denez aurrerantzean beteko duen eserlekura.

HEMEZORTZI URTEZ DIPUTATU

Yorkshiren jaiotako 64 urteko emakume honek Alderdi Laboristaren barruan hasi zuen bere karrera politikoa 1967an. Handik zazpi urtera Erresuma Batuko Behe Ganbarara iritsi zen eta ordudanik hauteskunde guztietan aukeratu dute.

Postua onartu zuenean Parlamentua ez dela karrera bat izan bere bizitza baizik, adierazi zuen Boothroydek. Aurrerantzean ganbara «berdintasun eta zuzentasunez» bideratzea promes egin zuen «botere exekutiboaren indarraren aurrean diputaduak defendatuz».

Genscherren dimisioak alderdien arteko ezadostasunak azaleratu ditu

BONN

Hans Dietrich Genscher orain artean Alemaniako Atzerri ministro izan denaren dimisioak Bonnek Gobernu osatzen duten koalizio hiru alderdien arteko ezadostasunak azaleratu ditu. Egoera berri hau aztertzekeo Batasun Kristaudemokrata (CDU), Bavariako Batasun Sozialkristaua (CSU) eta Alderdi Liberala bildu ziren atzo Helmut Kohl lehendakariaren zuzendaritzapean.

Genscherrek atzerriko arazoetarako karterarekin batera betetzen zuten lehendakariorde postuak sortu zituen eztabaidarik nabariarik. Izan ere, atzerriko kargu hau CSU alderdiak be-

reganatu nahi du Theo Waigel Hazienda ministroarentzat. Koalizio alderdi txikiak Bonnek exekutiboan eta atzerriko politikan indar handiago eskatu nahi du Genscherrek dimittitu duen une honetan.

SCHWAETZER ATZERRI MINISTRO


Atzoko bileran arazoa argitu ez zen arren, karterak banatzerakoan liberalentzat izan zen lehendakariorde gortetzen segituko dutela espero zen. Seguruenik Jorgen Moellmann Ekonomia ministroa edo eta Klaus Klinkel Justiziakoak beteko du Helmut Kohlen laguntzaile lana.

Alderdi Liberalak Irmgard Schwaetzer emakumea Atzerri

Ministeritzako buru jartzeko hartu duen erabakiak ere ez du onspen handiegirik jaso koalizio beste bi alderdien aldetik. Edmund Stoiber Bavariako Barne ministroak baita Erwin Huber CSUko idazkari nagusiak ere liberalek bultzatutako «feudoen errebindikazioa», kritikatu zuten.

Nazioartean bestalde, berehala sortarazi zituen erreakzioak Genscherren dimisioak. EEB-Betako Estatu idazkariak «Atzerri ministroen dekanok kargua uzteak ematen dion pena» azaldu zuen atzo.

«Nazioarteko eta baita munduko egoera hobetzen lagundu zuen ministroaren dimisioak» eragindako samina agertu zuen baita ere SESB ohiko lehendaka-



Helmut Kohl.

ri izandako Mikhail Gorbaxov-ek.

Genscherrek dimisioa itzuliezina dela adierazi duen arren Alemaniako ekialdeko liberalek Atzerri ministro ohiak Lehendakritza hartzea nahiko luketela azaldu dute.